inolako loturarik gabe kateaturik egotea da: *Koldo bulegora joan da; ni etxeан geratu naiz.*
- **Juntadura** maila
gramatikala bereko perpausak elkartzean datza baina; perpaus bakoitzak bere autonomia mantentzen du. Perpausa mota hauek loturazko juntagailu edo lokuzioen bidez elkartzen dira: *Koldo bulegora joan da eta ni etxeан geratu naiz.*
- **Menderakuntza** perpaus bat
beste batean txertatzean datza; beraz, perpaus nagusia eta mendekoa izango ditugu. Menderakuntzan menderagailuak ditugu perpausak lotzeko, hau da, atzizkiak: *Anak umea gaixorik dagoela esan du.*

Alborakuntza

Alborakuntza, elkartzen diren osagaiak elkarren ondoan jartzear datza, inolako loturarik gabe baina beren arteko lotura semantikoa izanik. Bi alborakuntza mota bereizten dira:

- **Alborakuntza hutsa:** *Ni ohera noa; oso nekatuta nago.*
- **Errepikapen bidezko alborakuntza:** osagai bietan egitura bera edo nolabaiteko lotura daukaten osagaiak errepikatuz gauzatzen dena. Emendiozko alborakuntza: *Ez du lanik egiten, ez besteei uzten.*

Juntadura

Juntadura maila bereko perpausak elkartzean datza. Juntadura normala juntagailuen bitartez bideratzen da. Juntagailuak hitz solteak dira (*eta, baina, baizik...*), eta juntatzen dituzten osagaien artean kokatu ohi dira. Bestalde, juntagailuak, lokailuak ez bezala, ezin dira metatu: nek̄ez ikusiko ditugu juntagailu bi elkarren segidan.

Emendiozko juntagailuak

Emendiozko juntagailuek, maila bereko osagaiak lotzen dituzte, baina osagaiak gehituz edo batuz. Emendiozko juntadura normalean *eta* juntagailuaren bidez gauzatzen da.

Formari dagokionez, euskara batuan *eta* juntagailua osorik idatzi behar da, *ta* eta *da* laburdurak ahozko hizkuntzarako utziz. Kokaguneari dagokionez, *eta* azken juntagaiaren aurrean jartzen da, salbuespenak salbuespen.

Eta juntagailua erabiliz gero, emaitza, aditzari dagokionez, plurala da. Ezagunak diren osagaiak ezaba daitezke; hala ere, batzuetan anbiquotasuna sortzeko arriskua dago.

Juntagailu hautakariak

Juntagailu *hautakariak* bi juntagai edo gehiagoren arteko aukera edo hautaketa adierazteko erabiltzen ditugu. Juntagailu hautakari erabilienak honako hauek dira: *edo*, *edota*, *ala*, *nahi(z)* eta *zein*.

- ***Edo***: maila guztiako osagaiak elkar ditzake; oro har, adierazpen perpausetan agertzen da. *Edo* juntagailuarekin aditza beti singularrean jarri behar da, salbuespenak salbuespen.
- ***Edota***: (*edo+eta*): *Edo* juntagailuaren parekoa da. Edonon erabil daiteke, sinonimo eta zenbatzaileen artean izan ezik.
- ***Ala***: maila guztiako osagaiak batzen ditu. Galde perpausetan eta zehar galderetan agertzen da, maizenik. Oro har, kontrako aukerak adierazten ditu, eta normalean, aditza singularrean jarri behar da, nahiz eta batzuetan pluralean azaldu.
- ***Nahiz / zein***: Perpausak baino atal txikiagoak batzen ditu. Gehienetan orobatasuna adierazten du, hau da, hiztunari berdin zaio bata ala bestea.

Juntagailu aurkariak

Juntagailu aurkariak bi osagairen arteko aurkaritza adierazteko erabiltzen dira. Bi aurkaritza mota ditugu, aski desberdinak:

- ***Baina*** motakoak: Juntagailua hau ez da erabateko aurkaritza. Era guztiako perpausak batzen ditu, eta osagai komunak ezaba daitezke bigarren juntagaian: *Ez da merkea, baina* polita da.
- ***Baizik eta*** motakoak: Lehenengo juntagaia ezezkoa da, eta bigarrenak ezeptapen hori baieztatzen du: *Ez da merkea, garestia baizik.*

Hainbat juntagailu daude, euskalkien arabera: baizik, baino, ezpada, baina.... Iparraldean, normalean, baina erabiltzen dute zentzu honetan.

Perpausak elkartzeko bidea. Menderakuntza

Batzuetan, perpaus bat beste baten barruan txertatzen dugu menderagailuez baliatuz. Horrelakoan menderakuntza erabiltzen ari gara.

Juntagailuen aldean hainbat ezaugarri berezi dituzte menderagailuek:

- Juntagailuak hitz solteak dira, eta menderagailuak, berriz, atzizkiak.
- Juntaduran, maila bereko perpausak elkartzenten dira; menderakuntzan, berriz, perpaus nagusia eta menpekoak ditugu.
- Juntaduran ez dago ia mugikortasunik, baina menderakuntzan, mugikortasuna dago hurrenkeraren aldetik.
- Menderakuntza errekurtsiboa da, hau da, menpeko perpaus baten barruan beste bat txerta daiteke, nahi adina aldiz.

Menderakuntzaren barruan honako multzoak bereiz ditzakegu:

- **Perpaus Osagarriak:** *Amak esan du ez dela etorriko.*
- **Zehar Galderak:** *Jakin nahi dut ea lana egin duzun.*
- **Helburuzkoak:** *Krema ekarri dut zuri emateko.*
- **Kausazkoak:** *Ez da etorri gaixo dagoelako.*
- **Baldintzazkoak:** *Euria egiten badu ez noa.*
- **Erlatibozkoak:** *Ikusi duzun gizona nire aita da.*
- **Denborazkoak:** *Zu etorri zinenean ohean sartu nintzen.*
- **Kontzesiboak:** *Lana gaizki egin arren ordaindu egin didate.*
- **Moduzkoak:** *Zuk esan bezala egin dugu.*
- **Konparaziozkoak:** *Hau espero nuen baino hobeto atera zaigu.*
- **Ondoriozkoak:** *Hain zen altua, non sabairaino heltzen baitzen.*

Perpausak elkartzeko bidea. Lokailuak (praktika)

Testu mailako loturak adierazteko erabiltzen ditugun hitzei *lokailuak* esaten zaie. Lokailuak hitz solteak dira, hau da, ez dira atzizkiak.

Juntagailuak ez bezala, metatu egin daitezke; hau da, perpaus berean lokailu bat baino gehiago ager daiteke.

Lokailuak bost multzotan sailka ditzakegu:

- **Emendiozkoak:** aurretik esandakoari zerbait gehitu edo gaineratzeko, adibidez: *bestalde, halaber, orobat, berebat, behintzat, segurik, behinik behin, bederen, bederik.*

- **Hautakariak:** testuan adierazitako gauza edo ideien artean hautatzeko, adibidez: *bestela, osterantzean, gainerakoan, gainontzean, ezpabere*.
- **Aurkaritzakoak:** aurretik esandakoari aurkaritza adierazteko, adibidez: *ordea, berriz, ostera, aldiz, aitzitik, bitartean, artean, alta, alabaina, dena dela, hala ere*.
- **Ondoriozkoak:** testuan zehar esandakoaren ondorio gisako zerbait adierazteko, adibidez: *beraz, bada, hortaz, orduan, honenbestez, horrenbestez, halatan*.
- **Kausazkoak:** testu mailako kausazko loturak adierazteko, adibidez: *izan ere, zeren, ze*.

Emendiozko lokailuak

Emendiozko lokailuak emendatzeko edo gehitzeko erabiltzen dira. Horien artean hauek daude:

- **Ere:** osagai bat egiten dio erreferentzia; honenbestez, ez da autonomoa eta ezin da bera bakarrik joan. Betiere aipatutako perpausaren elementu horren atzean eta ondo-ondoan kokatzen da.
- **Gainera:** aurretik esandako zerbait azpimarratzeko. Normalean, mendeko perpausaren hasieran doa.
- **Bestalde:** esandakoa indartzeko, perpausaren edozein lekutan koka daiteke.
- **Halaber, orobat, berebat:** aurretik esandakoari zerbait gehitzeko, perpausaren edozein lekutan doalarik.
- **Behintzat, bederen, behinik behin:** aurretik esandakoari zalantza kutsua eransteko. Ez dira neutroak; hiztunaren ustea adierazten dute.

Lokailu hautakariak

Lokailu hautakariak, izenak berak adierazten duenez, gauza edo ideien arteko hautaketa adierazteko erabiltzen dira. Beraz, *edo* eta *ala* juntagailuen baliokideak dira, adibidez:

Ez edan gehiago edo mozkortuko zara.
Ez edan gehiago; bestela mozkortuko zara.

- **Bestela, osterantzean:** bi erabilera nagusi ditu, baldintza eta murriztapena, “*hori alde batera utzita*” esapidearen antzeko esanahia duela. *Esaiozu egia; bestela, haserratuko da*.
- **Gainerakoan:** balio murriztailea edo baldintzakoa. *Jan agudo, gainerakoan ohera eramango zaitut*.
- **Ezpabere, ezperen:** baldintza balioa du, eta beti perpausaren hasieran agertuko da. *Zehaztapen bat egingo dugu, ezpabere, askok pentsa dezakete salbuespen bat dela*.

Aurkaritzako lokailuak

Aurkaritzako lokailuak (*ordea, ostera, aldiz, berriz, aitzitik, hala ere, alabaina, alta, dena dela...*) aldez aurretik esandako zerbaitkiko aurkaritza adierazteko erabiltzen dira. Beraz, *baina* juntagailuaren antzekoak dira, adibidez:

Ez dut inoiz ikusi, baina berehala ezagutuko nuke.

Ez dut inoiz ikusi; hala ere, berehala ezagutuko nuke.

- **Ordea, ostera, aldiz, berriz:** antzekoak dira, eta oro har, perpausa hasieran, tartean, zein bukaeran ager daitezke. *Ordeak*, berriz, lekua murritzua dauka.
- **Aitzitik:** lehenengo perpausa ezezkoa denean; bigarren perpausaren hasieran agertuko da.
- **Hala ere:** bigarren perpausaren hasieran kokatuko dugu. *Eta eta baina* juntagailuekin batera maiz agertzen da.
- **Alabaina:** bi adiera har ditzake: aurkaritza eta azalpena.
- **Dena dela:** nolanahi ere esapidearen baliokidea da eta normalean bi perpausen artean jartzen da.
- **Haatik, horratik:** bi erabilera ditu, alegia, aurkaritzako lokailu gisa ager daiteke edo harridura perpausetan.

Ondoriozko lokailuak

Ondoriozko lokailuak (*beraz, ba(da), hortaz, orduan, halatan, honenbestez, horrenbestez...*) beste lokailu guztiak bezala, ideia eta perpausen arteko lotura adierazteko erabiltzen dira, baina ondorio kutsua gaineratuz. Alegia, jarraian esango dena aurretik esandakoaren ondorioa dela adierazteko erabiltzen dira. Hau dela eta, ilatiboak edo kontsekutiboak esan ohi zaie.

- **Beraz:** dedukzioa egiteko erabiltzen da eta, oro har, bi perpausen artean agertzen da.
- **Bada:** hiru balio dauzka: ondorioa (= *beraz*), kausa (= *zeren*) eta hitz indargarri gida.
- **Hortaz:** berazen baliokidea da.
- **Orduan:** baldintza kutsua du.
- **Honenbestez, horrenbestez, hainbestez:** erakusleetatik eratorriak dira, eta berazen balio bera dute.
- **Halatan, hala:** beraz lokailuaren baliokidea.

Kausazko lokailuak

Kausazko lokailuak (*izan ere*, *zeren*, *ze*, *zergatik*, *alabaina*, *ba(da)...*), gainerako lokailu guztiak bezalaxe, ideia eta perpausen arteko lotura adierazteko erabiltzen dira, baina kausa kutsua gaineratzen dute. Nolabait, jarraian esaten dena aurretik esandakoaren zergatia edo azalpena dela adierazten dute.

- **Izan ere:** perpausaren hasieran ipintzen da, eta beste partikula batzuekin ere ager daiteke.
- **Zeren:** perpausaren hasieran agertzen da, eta *eta* izaten du, indargarri gisa.
- **Alabaina:** posizio guztietañ ager daiteke.
- **Bada:** *zeren* lokailuaren parekoa da.

Hiru.com-ek aterata

- See more at: <http://euskaljakintza.com/perpaus-elkartuak/#sthash.pNR3XYVf.dpuf>

Argudio testua

Teoria

Gai bat dela eta, nork bere tesi edo iritzia defendatzeko (eta beste bat/batzuenak baztertzeko) helburuarekin idazten den testua da argudio testua. Argudio testuak dira, esate baterako, iritzi artikuluak, eztabaidarakoak... Testu mota honen ezaugarri nagusia subjektibotasuna da, eta tresnak, berriz, *argudioak* dira; hots, testugilearen *iritzia indartzeko erabilten diren arrazoia*.

Hiru atal nagusi ditu argudio testu batek:

1. SARRERA:

Eztabaidaren aurkezpena egiten da bertan. Batzuetan defendatu nahi den tesiaren aipamena ere egiten da. Atal honek 1. paragrafoa hartzen du eta, **Ondorioa** paragrafoarekin batera, testuko atalik laburrena da (150 hitzeko testu batean, 3-4 lerro). Hona hemen 99ko Selektibilitateko gaia hartuta eman daitezkeen zenbait sarrera.

Gaia: *Ahozko/idatzizko kulturatik telebistaren kulturara.*

1.1.Gaia testuinguru historiko batean koka daiteke:

- **Duela zenbait urte, Caselli izeneko asmatzaile italiarrak**, berak ezertxo ere jakin gabe, gaur egun gure bizitzaren muinera sartu den munstro ikaragarria sortu zuen. Guk tramankulu hau Telebista izenez ezagutzen dugu egun.

1.2 Gaira hurbiltzeko norberari gertatutakoa erabil daiteke:

- Nori ez zaio gertatu, noizbait, lagunari galdera bat egin eta erantzunik ez jasotzea? **Niri, zoritzarrez, behin baino gehiagotan.**

1.3 Galdera erretorikoen bidez irakurlea gaian sartu:

- Jakina denez, azken bolada honetan ahozko literaturak garrantzia galdu du. Jadanik ez da aitonamonarik ipuinak kontatzen ikusten. **Zergatik galdu da horren aberasgarria den ohitura hori?**

1.4 Egungo egoera azpimarratuz:

- **Gaur egun telebista denborapasa garrantzitsuenetako bat bihurtu da.** Gero eta ume gutxiago oheratzen da aitak edo amak ipuin bat irakurri ondoren, edo liburu batekin minutu batzuk igaro ondoren. Orain, afalosteko filma ikusi eta gero oheratzen gara.

Sarrera horiek ikusi ondoren, ikus ditzagun atal hau idazterakoan erabil daitezkeen esaldi topiko zenbait. Oso lagungarri gertatuko zaizkizue.

- Gaurkotasun/interes handia du gai honek. Izan ere...
- Orain dela...urte.... Gaur egun, berriz, ...
- Askoren ustez,da. Hala ote da benetan?
- Azaletik/ sakonki ezagutzen dut gai hau, urrunetik/hurbiletik ezagutzen dut eta

Sarreratik garapenera:

Galdera erretorikoez gainera, sarreraren eta hurrengo paragrafoen arteko jauzia egiteko, lotura bat erabiltzen da gehienetan. Hona hemen horietako batzuk:

- Gaia jorratzeko honako puntuak erabiliko ditugu: ...
- Gai hau aztertzeraikoan, honako puntuak hartuko ditugu kontuan:
- Pasa gaitetzen, bada, gaia atalez atal garatzera.
- Baino gatozen harira.

2. GARAPENA:

Argudio testuaren muina da atal hau. Bertan biltzen dira artikulugilearen hipotesiak, jarrerak...; bere ideiak defendatzeko erabiltzen dituen arrazoi guziak, alegia. Baina, kontuz!, hierarkia (mailaketa) baten arabera antolatu behar dira argudioak. Paragrafo bakotza argudio baten inguruan antolatuta dago, eta **ideia eta argudio bakotzak paragrafo bat hartzen du** (ideia bat = paragrafo bat).

2.1 Argudiaketa motak:

2.1.1 Autoritate argudioa:

- Pertsona, elkarte edota erakunde baten iritzia erabiliz, artikuluko tesia sendotzeko erabili ohi dugu argudiatze modu hau.

Adibidez: *Munduko zientzialari jakintsuenek diotenez,...*

2.1.2 Irakurlea eta idazlea talde bereko:

- Artikulugileak bere pentsaera beste askorena dela agertzen du. Pluraleko lehen pertsona, gu, azpimarratzen da argudiatze mota honetan.

Adibidez: *Motorzaleok badakigu kaskoa beharrezkoa dugula.*

2.1.3 Adibide bidezkoa:

- Iritzia argiago, ulergarriago, eta, aldi berean, pisu handiagoko egiten dituen argudiatzea dugu hau.

Adibidez: *Estate baterako, zein gurasok mugatzen du telebista aurreko egonaldia?*

2.1.4 Tesien kontrajarpena:

- Norbere eta besteen tesiak eztabaidatz, arrazoizko tesi bat proposatu bukaeran.

Adibidez: *Telebista bidez ez omen da ezer ikasten, baina egia da dokumental ederrak ere ematen dituztela.*

2.2 Testuaren batasuna

Testuak barne lotura izateko, elementu hauek erabiliko ditugu: *antolatzaileak (lokailu-juntagailuak) eta erreferentzi baliabideak.*

2.2.1 Antolatzaileak:

Testua eta arrazonamenduaren haria bideratzen dute. Konsultatu ondorengo antolatzaile bildumak:

- Antolatzaileen zerrenda 1
- Antolatzaileen zerrenda 2

2.2.2 Erreferentzi baliabideak:

Testuan agertutako elementu bat beste era batera aipatzeko moduak dira. Guk ordezkapena eta pronominalizazioa hautatu ditugu:

Ordezkapena:

Zerbait modu ezberdinez aipatzea da. Ordezkapenaren bidez, elementu bat behin eta berriro ez errepikatzea lortzen dugu.

Adibidez:

Ordezkapenik gabe	Ordezkapenekin
Oso une larriak igarotzen ari da Maradona . Azken hiru egunak Montevideoko ospitale batean igaro ditu Maradonak . Medikuak dioenez, bihotz gaixotasunak jota dago Maradona , urteetan kokaina hartzeagatik.	Oso une larriak igarotzen ari da Maradona . Azken hiru egunak Montevideoko ospitale batean igaro ditu izar argentinarrak . Medikuak dioenez, bihotz gaixotasunak jota dago futbolari ospetsua , urteetan kokaina hartzeagatik.

Ikusten duzuen bezala, ordezkapenak irakurketa arinago eta atseginago bihurtzen du.

Pronominalizazioa:

Izenordain eta aditzondoenak bereiziko ditugu.

- **Izenordaina:** izenordaina berriro ez errepikatzeko, *hau, hura, bera, hauek...* erabiltzen ditugu erreferentzia egiteko.

Adibidez: Kepa eta Durangoko lagunak bi trenetan etorri dira: **hura** hiruretan eta **haiak**, berriz, bostetakoan.

- **Aditzonda:** gehienbat aurretik aipatutako lekuren bati egiten dio erreferentzia (han, bertan...)

Adibidez: Txikitán sarriago joaten ginén herriko plazara. **Han** elkartzen ginén koadrilako guztiak eta **bertan** igaro genituen unerik zoriontsuenak.

3. KONKLUSIO EDO ONDORIOAK

Argudio testuaren azkeneko paragrafoa hartzen du. Atal honek bi helburu ditu funtsean: batetik, testuan zehar garatutako ideia nagusia(k) laburbildu, eta, bestetik, ondorio batzuk atera.

- Erabiltzen diren **lokailu-juntagailuak** hauak dira: **beraz, hortaz, aurreko guztia laburbilduz, honako ondorioak atera daitezke, amaitzeko...**

Adibidez:

Aurreko guztia laburbilduz, zera esan daiteke: tresna erakargarria eta probetxugarria da telebista egoki erabiltzen jakinez gero. Ondorioz, zure esku dago programak eta orduak ondo aukeratzea. Gogoratu, beraz: telemundoak telebista itzaltzeko ere balio du.

IRITZI TESTUA

TESIA-ANTITESIA-SINTESIA da kazetariekin iritzi artikuluetan maiz erabiltzen duten egitura. Hona hemen bi testu-eredu eta beroien egituraketaren hausnarketatxoa, zuk hurrengoan paralelo bat egin dezazun beste gairen batekin.

1-TELEBISTAZ

“Caja tonta” izengoitziz bataiatu zuen azkar ustekoren batek. Gero, sinistarazi nahi izan digute bera tresna tontoa izarteaz gain, ikusten dugunok ere tontotu egiten gaituela. Irizpide horiek hausnartuz bizi izan da azken urte mordo honetan modernotik edo irakurritik pittin bat zuen oro, moderno eta irakurri plantak egiten zituen hura bizi izan den bezalaxe.

Antzerkiak gure espiritua (kritikoa, alegia) lantzeko balio zuen, zein eta obra kostunbrista zaharkitu hutsal horietakoa ez zen. Zineak beste hainbeste, kritikoren bat halako pelikula komertziala zela esatea bururatzten ez bazitzaion. Telebista, ordea, tontogilea zen, espiritu kritikoa landu ordez deuseztu egiten zuen aparailu arbuiatua. Izate goreneko idazle, intelektual, politiko edo kirolariek edozein elkarritzetan esango dizute, galdu ala ez galdu, eurek telebista ikusteko ohiturarik ez dutela, programa jakinen bat edo bestek baino ez dituela erakartzen. Eta harrotasunez esaten dute behiala berri baina orain edozein arazo bezain erabilia den topikoa, esate hutsarekin puntuak irabaziko baitituzte.

Gutxietsita ez ezik, gaitzetsita dago gainera. Telebista arraio horrengatik, jendeak gutxiago irakurtzen omen du, haurrei ahaztu egiten omen zaie jolasten, helduok ez bide dugu lehen adina pentsatzeko betarik hartzen, belaunaldien arteko afalondoko elkarritzeta goxo hura galdu egin omen da, antzokiak eta zinemak hustu... Lehen denak hilean bosna liburu irakurri, Kanten filosofia xehetu eta antzerkira biz behin joaten al ziren ba?

Norbaitek esango du neurrian datzala gakoa. Neurria hartu behar zaiola telebistari, benetan interesatzen zaizkigun saioak ikusi eta interesatzen ez zaizkigunak heltzean aparailua itzali eta alde egiten jakin beharra dagoela, haren aurrean tonto-tonto geratu ordez. Horixe neurrian datzala dena! Zurruteroarena pare bat kopa hartu eta planto egitean, erretzailearena paketea botatzean berririk ez erostean, drogatarena beharraren atzaparretan eori aurretik geratzean. Baino zurruteroak, erretzaileak nahiz drogatak nagusiki nahi dugulako gara zurrutero, erretzaile nahiz drogata, teleadikto nagusiki nahi duelako teleadikto den bezalaxe. Batzuentzat plazerra bada zenbait neurri gainditzea, besteentzat beti izango da txorakeria.

Kontuak kontu, batek baino gehiagok nabarituko zuen telebistaren hutsunea oporraldiotan. Itzultzean harro botako zizuten hamabost egun eman dituztela telebistarik gabe haren faltarik somatzeke. Eta igual pasatu dituzte iluntzeak jokoan asper-asper egin arte edo diskotekan beti antzeko imintzioak eginez edo bati bestearenak eta besterenak bati batere importa ez zaizkien kontuak elkarri esaten edo gurutzogramak eginez. Hori aberastasuna bada... betoz telebista pribatuak ere badezpada.

EGITURAKETA

- 1- Erabiltzen al ditu idazleak ikuspuntu bereko ideiak?
Ez, 2-5 paragrafoak tesiaren aldekoak dira eta 6-7.paragrafoak tesiaren kontrakoak.
- 2- Zer ideia erabiltzen ditu bere iritzia defendatzeko?

TESIA: *Gero sinistarazi nahi izan digute bera tresna tontoa izateaz gain , ikusten dugunok ere tontotu egiten gaituela* (1.paragrafoa).

TESIAREN ALDEKOAK:

- Antzerkiak eta zineak espitiru kritikoa lantzeko baliagarriak (2.paragrafoa).
- Telebista ikusi bai, baina modu selektibo batean (3.paragrafoa).
- Beste jarduera intelektual batzuk eragotzi, oztopatu (4.paragrafoa).

- 3- Zer ideia erabiltzen ditu bere iritziaren kontra?
Gakoa neurrian omen badatza ere, norberaren erabakia da (5.paragrafoa).
Telebistaren hutsunea nabaritu eta ez ikustearren, asper-asper eginda eman oporraldia (6.paragrafoko lehenengo 3 lerroak).
- 4- Agertzen al da ondorioa testuan? Hala ez balitz, zein jarriko zenuke zuk?
Gutxi gorabeherakoa, ez oso argia. Testuan zehar ematen da. Bat aukeratuz gero, 6.paragrafoaren azken esaldia..
- 5- Ideiez gain, erabiltzen al du idazleak besterik bere iritzia azaltzeko?
Tono ironikoa. Horrexek laguntzen dio bere iritzia argi adierazten.

2- ADIERAZPEN ASKATASUNA vs KOMUNIKABIDEEN INDARRA

Ez dut inoiz oso argi izan zein den komunikabideen papera gure gizartean, besteak beste, pentsatzen jarri izan naizenetan, ematen duen baino askoz ere konplexuagoa den ondiorira heldu naizelako. Edozein kasutan, badirudi argi dagoela edozein kazetarik tirabira bat izan behar duela betiko: "Adierazpen askatasuna bai, baina norainokoa?".

Munduak orain arte ezagutu dituen errejimen politikoen artean bat baino gehiago izan da askatasun hau mugitzearen aldekoa, eta botere politikoaz baliatu izan dira herri xumeari hel zekiokeen (eta hel dakiokeen) informazioa kontrolatzeko. Ez dirudi, ordea, hau demokraziaren ezaugarri denik.

Argi ikusten dut inork ez duela jakin behar diren hainbat eta hainbat gauza ezkutatzeko eskubiderik, hau da, kargu politikoa izateak ez lioke inori eman beharko, gehienon ez jakinkeria zabaltzeko bidea. Alde honetatik, adierazpen askatasunak erabatekoia izan beharko luke. Argi ikusten dut, era berean, nik eta edozein kazetarik egoki iruditzen zaiona esateko eskubidea daukala. Hots, komunikabideak baliagarriak izan behar zaizkigu gure arteko

komunikazioa gara dadin, baita gure iritzirako onargarriak ez diren gauzak, ekintzak... eta zernahi gauza salatzeko ere.

Hirugarrenez, argi ikusten dut gure gizarteak eta gizakiak berak *leader* antzekoak behar dituela aurrera egingo badu; esan nahi baita, gizarteak iritzi-sortzaileak behar dituela gatazkatsuak izan daitezkeen auziei argia emateko.

Baina, esandakoa gorabehera, ez dut hain argi ikusten demokrazia batean noraino hel daitekeen kazetari batek eman dezakeen informazioa. Non hasten da pertsonaia publikoaren intimitatea eta non informaziorako eskubidea eta beharra? Esaterako, Lady Di hil zenean, beharrezkoak al ziren hil berri zelarik atera zitzaitzkon argazkiak? Edota, baliagarria al zaigu "El Mundo" egunkaria irakurtzeko, beronen zuzendari nagusiak dituen sexu-desbiazioak ezagutzea?

Era berean, ez dut hain argi ikusten informazio guztiak mass media izeneko horietara heltzeko eskubidea daukanik. Adibidez, konta lezake kazetari batek beste pertsona baten inguruko zerbait, informazio hori erabilita hirugarren lagun batek hil badezake artikulu horren subjektua? Argi dago ezetz.

Azkenik, ez dut hain argi ikusten iritzi-sortzaileen papera. Onartzen dut askorentzat, (eta agian baita neuretzat ere) ezinbestekoak direla gure gizartean. Baino, ez al da posible iritzi-sortzaile horiek botereak zuzenduak izatea eta, beraz, oinarritzotzat jotzen den adierazpen-askatasuna kontrolerako tresna bihurtzea?

Honengatik guztiarengatik esan dut hasieran auzi hau ematen duen baino konplexuagoa dela. Azken finean, gizakiaren on egite horretan datza dena; alegia, on egin nahi bada, ez da ezer gertatzen; kontrakoa gertatzen denean, ordea, bai, kasu horietan entzutekoak eta entzun behar ez direnak entzungo ditugu.

EGITURAKETA

- 1- Zer testu-motaren aurrean zaude, hots, argudiozkoa al da? Narratiboa al da?... Argudiozkoa.
 - 2- Zehaztu, zer testu-era irakurri duzu?
Iritzi-artikulua, bertan iritzia agertzen zaigulako.
 - 3- Zein da testu honen egitura?
 - 4 TESIA: 1.paragrafoan agertzen da. Testuaren ideia nagusia azken esaldian agertzen da: "Adierazpen-askatasuna bai, baina norainoko?".
- TESIAREN ARRAZOIKETA: 2-5 paragrafoak. Bertan hurrengo ideia hauek azaltzen dira:
- a) 2.paragrafoa: "Zenbait errejimen poitiko adierazpen-askatasunaren kontra azaldu da; ez dirudi demokraziaren ezaugarria denik".
 - b) 3.paragrafoa: "Edozein kazetarik, egoki iruditzen zaiona esateko eskubidea dauka".
 - c) 4.paragrafoa: "Komunikabideek baliagarriak izan behar dute gure arteko komunikazioa garatzeko, baita zernahi gauza... salatzeko ere".

d) 5.pragrafoa: "Gizarteak leaderrak behar ditu, iritzia sortzeko eta auzietan argia emateko".

ANTITESIA (kontrargumentazioa): 6-8 paragrafoak. Bertan hurrengoideak azaltzen dira:

a) 6.paragrafoa: "Non hasten da pertsonaia publikoaren intimitatea eta non informaziorako eskubidea?".

b) 7.paragrafoa: "Informazioa neurtu egin behar da" , planteatzen den galderan utzitako ideia da).

c) 8.paragrafoa: "Iritzi-sortzailearen papera botereak zuzendua ote...".

SINTESIA (ondorioa): 9.paragrafoa: "... auzi hau

5- Zein testu-antolatzaile erabiltzen ditu idazleak egitura hori gauzatzeko?

ARRAZOIAK GEHITZEKO: era berean, hirugarrenez, azkenik.

ARRAZOIAK KONTRAJARTZEKO: edozein kasutan, ordea, gorabehera, baina.

ARGIBIDEAK EMATEKO: hau da, alde honetatik, hots, esan nahi baita, adibidez, alegia.

KONKLUSIORAKO: beraz, honengatik guztiagatik.

("Igara- "Nire ustez..." HEOK 3.maila, HABE)

Krisia eta energia (Zikloetarako Sarbidea 2009)

Ekonómia krisiaren eraginez, gas natural eta petróleoaren prezioek goia jo zuten 2008ko udan. Udatik hona, petróleoaren prezioa %67 murriztu da, eta gas naturalaren %60. Baino jarraitu beharreko **aldagaia** ez da salneurria. Benetako **gakoa** ekoizpen maila da, bereziki munduko petrólio ekoizpena.

Benetan gertatzen ari dena hobeto ulertzeko, oso kontutan hartzeko da OECDren morroia den Nazioarteko Energia Erakundeak(IEA) azken hamarkadan burutzen ari den ziaboga. IEAk 2030erako aurreikuspen nagusiak plazaratu ditu (...) Etorkizuneko joera argia da: prezioen gorabeherak hegazkotasun handiarekin, alde batetik; eta petrólio ekoizpenaren gainbehera, bestetik. Izan ere, IEAk diagnosi argia dauka: "Munduko energia sistema **bidegurutzean** dago. Energia hornikuntza eta kontsumo joerak mundu mailan argi eta garbi sostengaezinak dira ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen ikuspuntutik. Baino hori alda daiteke eta horrela izan behar du; oraindik norabidea aldatzeko denbora dago. Erronak honako hauek dira: alde batetik energia eskuragarri eta fidagarriaren hornikuntza segurtatzea; bestetik, energia hornikuntza sistema, eficiente eta ingurumenaren aldetik onbera den karbono baxuko sistema arinki bilakatzea. Behar duguna energia iraultza da."

Ekonómia hondora doa, baina arazoia ez da ekonomiaren erritmoa moteltzen ari dela. Izan ere, horrela gertatuko balitz naturak benetan eskertuko liguke, moteltzeak CO₂ isurketen eta hondakinen pilatzearen moteltzea ekarriko bailitzke, adibidez, baita hainbat natura baliabideren **agorpena** moteltzea ere. Benetako hondamendia krisiari aurre egiteko eta ekonomia berpizteko funtzionatuko ez duten **errezeptak** ezartzen saiatzea litzateke.

Herman Daly ekologi ekonomilariek esaten ohi duteenez, egungo ekonomia sistema hain handia denez gizarteak ezin du suposatu mugarririk gabeko ekosistema batean funtzionatzen duela. Hazkunde ekonomikoa berreskuratzeko neo-keynesismoak proposatzen dituen neurriak ez dute funtzionatuko, benetako arazoia hazkunde bera baita planeta mugatu batean. Eta jada muga pasatu dugu. Aro berria heldu da: ekonomía ekologikoak plazaratzen dituen diagnostikoak eta proposamenak askoz gehiago kontuan hartzeko. Bestalde, nik ez dut modurik ikusten gauzatu behar dugun energia iraultza burutzeko ekimen publiko sendo baten bidez ez bida.

GORKA BUENO

EHUko irakaslea.

1. Testua sorrarazi duen komunikazio egoeraren ezaugarriak deskribatu. Non publikatu da?, nori zuzentzen zaio?, azalpena, narrazioa ala argudiozko testua da? Publikazioaren zein ataletan esperoko zenuke aurkitzea? (1 p.)

Non	
Nori:zuzendua	
Era diskurtsiboa	
Atala	

2. Erantzun lerro batean zein den testuaren gaia: (1 p.)

3. Testuan beltzez diren hitzen sinonimo bana idatzi: (1 p.)

aldagaia	
gakoa	
bidegurutzean	
agorpena	
erezetak	

4. Ideia nagusiak adierazi eskema baten hierarkizatzu. (2 p.)

5. Idatzi 20 lerroko testu bat baloreen krisiaz gau egungo munduan.(5 p.)

Kultura opari (Zikloetarako Sarbidea 2010)

Iragarkia burmuina tortura txinatarreko tanten **legez** ari zaigu burezurra zulatzen. Zer esan gura ote dute leloa asmatu zutenek: kultura oparia, mauka, pagotxa dela? Kultura oparitu egin behar dela eta ez erosio? Oparia bada doan jaso beharko genukeela? Eta nork nori oparitu behar dio kultura? Kultura oparitu egin behar da baliobakoa delako, **ezdeusa** delako? Oparitzaa erosteari baderitzogu, nork jasotzen du etekina erosten duenak, saltzen duenak, dendara banatzen duenak ala egileak? Elkartasun bete, maitasun bete, bake bete, besarkada bete diren egunotan ez baitugu ezelango banku edo aurrezki kutxen iragarkirik ez ikusi ez entzun dirua opari aldarrikatzen duenik. Kultura opari iragartzen dutenek egunotako kontsumismo materialista itsuari aurka egiteko hautatu dute leloa? Orduan zergatik proposatzen digute 250-300 euro bitarteko **prezioa** duen liburu elektronikoa oparitza? Kontzertu baterako proposamena, gaztetxe bateko bertsosaiorako gonbita, hogeita bost urtean euskarazko antzerkigintzan diharduen taldearen antzezlan berrirako sarrerak, horrenbeste hunkitu gintuen diskoa, gai jakin batekiko ikuspegia aldarazi zigun liburua, geuk sortutako poema... Koloniak, era guztiak arropak, berrikuntzarik berrieneko tramankuluak eta enparauak erosteko amu diren iragarki berberak erabili behar ditugu kultura bihotz duten eskaintzitarako? Behin baino gehiagotan salatu dugu erabat gaitzesteko dela BMW autoen iragarkietan askatasuna gidatzeariek lotzea edo CAN aurrezki kutzak iraultza berba manipulatzea bere sarea **hedatzeko**. Halan da zeren gurago genuke kultura eskaintzeko orduan galbahe bera erabiltzea, kulturari balio material hutsa estigmatizatu ez diezaiongune, salerosketarako esklabo **bihur** ez dakigun.

Gotzon Barandiaran

6. Testua sorrarazi duen komunikazio egoeraren ezaugarriak deskribatu. Non publikatu da?, nori zuzentzen zaio?, azalpena, narrazioa ala argudiozko testua da? Publikazioaren zein ataletan esperoko zenuke aurkitzea? (1 p.)

Non	
Nori zuzendua	
Era diskurtsiboa	
Atala	

7. Erantzun lerro batean zein den testuaren gaia: (1 p.)

8. Testuan beltzez diren hitzen sinonimo bana idatzi: (1 p.)

Legez	
Ezdeusa	
Prezioa	
Hedatzeko	
Bihur	

9. Ideia nagusiak adierazi eskema baten ierarkizatuz. (2 p.)

10. Idatzi 20 lerroko testu bat publizitatearen eragina gaur egungo munduan.(5 p.)

Klonazioa dela eta ez dela (Zikloetarako Sarbidea 2011)

Duela hiru urte, aldizkari honexetan giza klonazioaren aldeko iritzi-artikulu bat idatzi nuen, ez bereziki alde nengoelako, aurkakoen argudioak funtsik gabeak iruditzen zitzakidalako baizik. Geroztik denborak aurrera egin badu ere, eztabaidak bere horretan dirau. Oraindik ere ez dut inolako asmorik nire burua klonatzeko, baina klonazioaren aurkarien izuikarei susmo txarrak hartzen dizkiet.

Hala ere, klonazioaren aurka dagoen jendearen emana ikusita, hauen arrazoiaik zein diren jakiten saiatzen naiz, ez baitut nire buruan eta iritzietan halako federik.

EHUko Zuzenbide eta Giza Genoma Katedrako irakasle den Leire Escajedoren ustez, esaterako, "klonazio terapeutiko" terminoa erabiltzea ez da zuzena. Izañ ere, klonazio terapeutikoa eta ugalketarako klonazioa teknika berbera dira, eta ez gauza desberdinak. Garai batean idatzi nuenez, nire ustez teknika da gutxienekoa, eta, horren ordez, helburuak eztabaidatu beharko genituzke. Klonazioa, txertaketa, tatuajea edo beste edozein teknika ez zaizkit berez txarrak iruditzen, helburuak jotzen ahal ditut txartzat edo ontzat. Bainan hemen, noski, iritzien esparruan gaude, eta nireak ez du irakurleenak edo beste edonorenak baino gehiago balio.

Aipatutako artikulan klonazioaren aurkako zenbait arrazoi legal eta tekniko ematen dira, baina beste edozein teknika berriren aurrean (*in vitro* ernalketa, *adibidez*), arazo tekniko eta legal ugari izan daitezkeen arren, ez da teknika hauen aurka aurrez aurre azaltzen (gaur). Hortaz, zerik egiten du klonazioa hain eztabaidagarri? Leire Escajedo klonazioaren aurka (edo gutxienez, alde ez) egotearen benetako arrazoia ez dirudi artikulan barrena garatutako argudiotan dagoenik, baizik eta azken esaldian, pasadan, ematen zaigun iritzian. Bertan esaten da, hitzez hitz, klonazioa "naturaren prozesuak **bortxatzen** dituen teknika" dela.

Horrek txunditura utzi nau, eta naturaren prozesuak bortxatzen dituzten eta ez dituzten tekniken arteko mugak zehazten saiatu naiz. Zenbat eta gehiago saiatu, ordea, gero eta **lausoago** ikusten dut dena. Lurpean milioika urtez egon den petrolioak 3.000 metroko sakoneratik atera, hura erre, eta planeta oso bateko klima aldatzea natura bortxatzea da?

Bai, agian urrunegi noa, **sofisma** hutsetan erori naiz. Gizakiaz eta terapeutikaz ari ginen. Bainan hemen ere galderak **temati** datozen burura. Hildako baten organoa bizi bati txertatzea natura bortxatzea ote da? Eta zer esan *in vitro* ernalketaz?

Bistan denez, ez dut inondik inora argi zerik bortxatzen dituen naturaren prozesuak eta zerik ez. Bainan uste dut funtsean argudio hori erabiltzen dutela klonazioaren aurka daudenek, agerian ez bada ezkutuan, eta hortik abiatuta eraikitzen dutela beraien arrazonamendu osoa. Oinarrizko **premisa** ordea, nik behintzat ez dut ikusten.

ARTURO ELOSEGI

1.Zein da testuaren helburua? (1 p.)

.....

2. Erantzun: (1 p.)

- a) Testu mota.....
- b) Era diskurtsiboa.....
- c) Non ager daiteke?.....

3. Egiazkoa edo gezurra den adierazi pasarte batekin frogatz (1 p.)

Kontrako argudiorik ematen ez diotelako, autorea klonazioaren alde azaltzen da.

Naturaren prozesua bortxatzen duen teknika delako baztertzen du Leire Escajedoak klonazioa.

Klonazioak, naturaren prozesuan bortxaketa suposatzen duela argi uzten dute teknika honekin bat datozenak eta baita aurka agertzen direnak

4. Sinonimo bana adierazi (1 p.)

Bortxatzea	
Lausoago	
Sofisma	
Temati	
Premisa	

5. Idatzi testuko adibideren bat (1 p.)

Antitesia.....

Teknizismoa.....

Mailegua.....

Hitz eratorria.....

6. Hogei lerrotan garatu gaia “ Teknika gutxienekoa da, eta, horren ordez, helburuak eztabaidatu beharko genituzke” (5 p.)

Elikagai mirarigileak (Zikloetarako Sarbidea, 2012)

Gizadiaren zati bat kezkatan blai bizi da, ez danielako zer jan beharko lukeen osasunaren onetan. Beste zati handi batek ez du zer janik, bere kezkak ez dira elikagai honen edo bestearen alde egitea, jatea baizik.

Bi mutur horien artean apena dagoen erdibiderik. Zalantzak gabe, gu mutur batean gaude, aberatsen muturrean eta Somaliako biztanleak bestean. Gure kezka elikagaiak aukeratzerakoan asmatzea da. Edo, zehazkiago, zertan egin kasu elikagai industriari eta horren inguruan sortu diren milaka sasi-adituei, nola bereizi egia eta propaganda, nola jan nahi adina gizendu edo gaixotu gabe.

Egunkari osoa beharko nuke bizitzan zehar ezagutu ditudan mito gezurtatuen zerrenda egiteko. Gogoan dut oliba olia kaltegarria zela zioen leloa, arrai zuria urdina baino hobea zela zioena edo ogi zuriaren lehentasuna aldarrikatzen zuena.

Egia da sasoi hartan ez zegoela gure artean hainbeste zalantza jakien inguruan, agian orduan bai geundela gaur desagertu zaigun erdibidean. Zegoena jaten genuen, gure etxeekoek erosten edo ekoizten zutena eta kezka nagusia ez zen loditasuna, aiski jatea baizik. Hain zuzen, horregatik zuen ospea gain-pisuak, lortzen zaila zelako, gutxiren esku zegoelako.

Geroztik, gure inguruan janaria soberan zen neurrian, beste sinesmen batzuk gureganatu ditugu. Edo sineskeriak, joan den astean Europako erakundeek adierazi zigutenez. Eskarmentuak erakusten digu gaurko **sinesmenak**, sarritan, biharko sineskeriak direla. Baino, gaurkoz, egia erakundeek aldarrikatzen dutena da, ez harri azpitik ere sortu diren aditu sinestunek esaten digitena, are gutxiago elikagai industriaren propaganda.

Europako erakundeen esanetan, ez da egia sojak menopausia arintzen laguntzen duenik, ezta bifidoek defentsak indartzen dituztenik ere. Sinesmenak sinesmen, gauza da gaur egun telebistetan ikusten dugun iragarki asko aldatu egingo dela derrigorrez datorren abendutik aurrera, ezingo dutela aldarrikatzen dutena aldarrikatu, legeari kontra egiteko **hautua** egiten ez badute behintzat.

Beste aitzakia batzuk asmatu beharko ditugu gure **grinak** zuritzeko. Zeren gutako gehienok ondo asko baitakigu zer eta nola jan edo edan osasunari kalte ez egiteko. Baino nahiago izaten ditugu mirariak, horien eta zentzu komunaren artean, nahiago mirariak, nahiago guru baten esanak, batez ere sasi-zientziaz **mozorrotuak** badaude.

ARANTZA URRETABIZKAIA

1. Zein da testuaren gaia? (1 p.)
.....

2. Erantzun: (1 p.)

- a) Testu mota.....
- b) Era diskurtsiboa.....
- c) Non argitaratu daiteke?

3. Egiazko edo gezurra den adierazi pasarte batekin frogatuz (1 p.)

Zer eta nola jaten dugunaz zalantza egin dugu betidanik

Sasi-adituei esker bereizten ditugu elikagai industriaren egi eta gezurra

Idazlearen kezkak elikagaiak aukeratzerakoan asmatzea da

4. Sinonimo bana idatzi: (1 p.)

sinesmenak	
hautua	
mozorrotuak	
grinak	

5. Idatzi testuko adibideren bat: (1 p.)

Hiperbolea.....

Erlatibozko perpausa.....

Antitesia.....

Lokailu kausala.....

6. Hogei lerrotan garatu gaia “Guk geuk zer eta nola jaten dugunak baino, munduko goseteak kezkatu beharko gintuzke.”(5 p.)